

Misterio-antzerkia

Erdi Aroko erlijiozko antzerki herritarra, liturgiako *elizkizun dramatikoa edo Bibliako zenbait gertaeratik, batez ere Jesukristoren bizitzakotatik, aterea.

Gure garaioan berriro indarra hartu dute honelakoek. Horietakotzat jo daiteke Iratzeder-en euskarazko Pasionea drama ezaguna.

Ik. Misterioa, 5; Erlijiozko drama.

Misterio-erlijioa

Horrela izendatzen da *erlijio-zientzietan, Ekialde Hurbiletik etorri eta helenismoaren garaian Grezian eta Erromako inperioan zabaldu zen hainbat *erlijioera ezkutuko eta esoteriko, salbamen-erlijiotzat hartzen dena.

Sarbidatuak bakarrik har zezaketen parte horietan. *Sarbidapen-erritua zen, hain zuzen, lehen errito garrantzizkoena, funtsean lau urrats zituen: 1) Sarbidatzeoaren *garbikuntza, uretako bainuaren, urreko edo odolazko *ihiztaduraren eta zenbait penitentziaren bidez; 2) *Hierofante edo apaizak ezagutza ezkutuez hura eskolatzea edo jakintza mistikoen berri hari ematea; 3) Gauza sakratuak, jainkoen *irudi santuak edo bestelako *sinbolo doneak fededunei erakustea, giro eta ingurune misteriozkoaren barnean; eta ondoren, *prozesio edo antzeste santuaren ospatzea; 4) Bukatzeko, fededunen arteko oturuntza sakramentuzkoa, haien arteko *elkartasuna eta jainkoarekiko batasuna adierazten eta nolabait gauzatzen omen zuena, haren hiltze-berpiztetan esku hartuz. Ik. Teofagia.

Misterio eleusiarrek eta orfikoek ospe eta entzute handia izan zuten.

Gerora nabarmenkeriatan eta gehiegikeriatan erori ziren: *orgiak, etab. *Kristautasunaren hedatzearekin eta finkatzearekin batera desagertu ziren; baina, historigileen ustez, zenbait elementu erlijio-modu horietatik hartu du kristautasunak, batez ere *sakramentologiari dagokionez.

Ik. Misterioa, 3; Esoterismoa; Esoterikoa/Exoterikoa; Mistizismoa.

Mistika

Erlijiozko esperientziako gertakari eta agerkari mistikoen multzoa edo barrutia da. Gertakari-agerkari horien funtsean fededunaren egoera mistikoa dago. Jainkoarekin edo jainkozkoarekin (Misterioarekin) sakon-sakonean bat egitearen esperientzia da egoera mistikoa. Egoera horretan fededunak gutxietsi eta nolabait galdu egiten du ageriko

zeinuen eta kontzeptu abstraktuen baliabidea, *misterioaren zuzeneko ukitu eta edukitza iristean.

Inmanentziazko mistika (*budismoa) eta trazendentziazko mistika (*judaismoa, *kristautasuna, *islamismoa) bereizten dituzte autoreek.

Ik. Misterioa; Mistizismoa; Jainkoak hartua; Sufismoa; Erlijiozko esperientzia.

Mistizismoa

Erlijiozko sinesbidea eta ihardunbidea da, gizon-emakumeen eta Jainkoaren arteko sakoneko batasun minaren bizipena azpimarratzen eta nabarmentzen duena. Erlijio guztietan aurkitu ohi dira aldika horrelako joerak: Kristautasunaren barruko korrante iraunkorra ezezik, islamismoa *sufismoa, hinduismoa *bhakti-a, etab. Misteriozkoaren, *bakearen, sakontasunaren eta osotasunaren bizipentzat hartu ohi da.

Esperientzia horien azalpenetan elementu hauek nabari ohi dira: gizakiaren gelditasuna eta hartzaile-izera jainkozkoaren aurrean, arimako gauzekiko atxekimendua, jainkozkoan murgiltzea eta horrela lorturiko barnebilikuntza edo baitarapena eta *gogarte sakona.

Horrelako esperientziaren adierazpideak oso ezberdinak izan ohi dira: sarritan apartekoak eta nabarmenegiak. Behin baino gehiagotan, esperientzia horren bila edo, azaleko adierazpide horiek nabarmendu ohi dira, barne-bizipenik ezean. Horrelakoan aurrean erne eta uzkur egon ohi dira erlijio-kargudunak.

Ik. Erlijiozko adierazpena; Erlijiozko esperientzia.

Mitema

Mitoma analizatzean, horren elementu osagarri bakoitza adierazteko berba, K. Lévi-Strauss-ek asmatutakoa. Hizkuntzalaritzaren fonema, morfema, lexema, etab. en arabera sortuta dago.

Ik. Mitoma.

Mitoma

Jatorriz grezierazko hitza: ipuina esan gura du. Hesiodo eta Homerok mamitzen dute batez ere kontzeptua. Honela defini daiteke, horien arabera, mitoma: Jainkoen eta heroien jaiotzen, bizitzen eta egiteen kondaira poetikoa. Testuinguru horretan azaldu nahi dituzte arazo kosmogonikoak ere. Ik. Kosmogonia; Heroien gurtza.

Horrelako mitoen kritika filosofia grekoak berak egin du, bereziki Jenofanek eta

Aristotelek; horien ustez, *logos-ak bete behar du mitoaren lekua: hau da mundua ezagutzeko bidea. Arrazoiketa, mitoaren eraz.

Geroago, funtsik gabeko kondaira izanik, herriak tradizioz gertakari historikotzat onartua da mitoa.

Bereziki *kristautasunaren eraginez, gezurrezko erlijioaren, irudipen hutsezkoaren --kristautasuna ez denaren-- adiera eduki du mitoak mende luzetan. Horrela elkarren kontrakotzat hartu dituzte *mitologia eta *teologia, nolabait Greziatik zetorren mithos-aren eta logos-aren kontrakotasuna errepikatuz. Mendebaldeko historian, oso berandu arte, arrazoimenezko ezagutzak ez du mitoa eta beronen balioa bereganatu.

Erromantizismoaren ondoren, ordea, eta etnologiaren, psikologia sakonaren eta *erlijio-fenomenologiaren eraginez, balioberritu eta esanguraz aberastu egin da mitoa. Izan ere, mitoa ez aspaldiko greziarren artean bakarrik, erlijio eta herri guztietan bizi dela agertu da. Horregatik estuegia agertzen da lehen definizio hura. Hortik sortu da, hain zuzen ere, mitologia, mitoen azterketa sistematikoa, eta XIX. mendetik honera gero eta gehiago hedatu dena.

Kultur antropologiak, etnologiak eta erlijioen historiak mitoaren eginkizun soziala nabarmendu dute; psikoanalisiak, berriz, kontzientzipe kolektiboaren logika edo errazionaltasunaren modura azaldu du mitoa.

Mitoa, ez da, beraz, edonolako ipuin edo irudipen hutsezko kondaira, eta bai "garai behinenetako historia", zeinetaz giza elkar-tea --gizarte edo Herri jakin bat-- baliatzen bait da, bere esperientzia historikoa argitzeko eta bere instituzio moralak eta sozialak oinarritzeko.

Gizarte edo Herri jakin batek bere buarekiko duen ezagueraren adierazpen simbolikoa da mitoa. Era berean, gizartearen berberatasunaren oinarria gertatzen da, eta horren adierazpidea, kultura simbolikoaren oinarri eta adierazpide den bezala. Mitoak ez du, berez, autore jakinik; herri-literaturari dagokio, eta gizataldearen kontzientzipeak barneratua du.

Adiera hedatuz, beste zera hau ere esan gura du mitoak: kontzeptu abstrakturen bat azaltzeko erabiltzen den alegoria edo irudikapen simbolikoa. Platonek honelako mito bat baino gehiago erabili du bere filosofia azaltzeko; ezagunena "haitzuloaren mitoa" da.

Azkenik, eta aurrekoen ondorioz, bestelako esangurak ere bereganatu ditu mitoa hitzak; bereziki Georges Sorel-ek ematen diona: giza elkarte edo talderen bati aurrez

aurre jartzen zaion etorkizunezko irudi liluragarriren bat, haren sentimena bizkortzeko eta haren ekintzari eragiteko. Adiera hau oso zabaldua du gaur mitoak. Horrelako irudikapena erabat gezurrezkoa eta ametsetakoa ez bada ere, faltua gertatzen da, sinplistentaren sinplistentaz. Funtsean zera da: ideia edo pertsonaiaren baten ustezko handia, errepikatzearen errepikatzeaz, eta kritikatu gabe onartuz, mito gertatzen da: e.b., biolentziarik gabeko gizadiaren mitoa edo kirolari handiren baten mitoa.

Alde horretatik, *utopiarekin lotzen da mitoa, bata eta bestea hutsalduz. Horrelaxe ulertzen du A. Arrindak ere mitoa, nabarmenki hutsalduz, nere ustez: "Mitoa zer den? Esana izanik gabekoa; alaz ere, gizonari eragiten diona" (Euskalerrria eta eriotza, Kardaberaz, Tolosa, 1974, 73.or.).

"Jatorriko garaietan jazotzen den historia sakratua": horrela definitzean du Mircea Eliade-k mitoa. "Jatorriko garaiak" esatean, sorburua adierazten du nolabait, hau da, garai historikoetan gertatzen denaren ereduzko iturburua, eta historian zehar gizataldeak duen jokabidearen eta munduko gertakarien paradigma.

Izan ere, azalpena da, alde batetik, mitoa; zurikapena, bestetik.

Azalpena da. Munduko eta historiako gertakarien nolabaiteko esplikazioa izan nahi dute mitoek. Zibilizazio tradizioaletan edo primitiboetan mitoak betetzen du, zibilizazio modernoan zientzietan teoremek eta filoso-fiaren printzipioek egiten dutena. Alde horretatik, ezagutza-modua da mitoa, zuzeneko, bizia, esperientziatzkoa; ezagutza abstraktua eta zientziatzkoa, berriz, objektuaren edo gauzaren ezagutza hotzaren antzera agertzen da.

Mitoak ez du erakutsi nahi *mundua eta historia beren horretan zer diren, eta Jainkoa zer den ere, eta bai munduaren eta gizakiaren arteko harremanak nolakoak diren. Giza problemari erantzun nahi dio mitoak, gizakiaren (eta beste munduaren eta gizartearen) jatorria gogoratuz. Jatorri-mitoa deitzen da, hain zuzen ere, horrelakoa. Izan daiteke: teogonikoa, kosmogonikoa, antropogonikoa; garrantzizkoa da, baita ere, gizarte eta Herri jakin baten kulturaren edo instituzioen jatorria azaltzen duena.

Eta zurikapena da mitoa. Bere historia eta jokabidea argituz, horientzako justifikazioa eta balioa bilatu eta ezartzen ditu gizataldeak, horretarako ereduak eta paradigmak mitoetan irudikatuz. Ez zaio axola, mitozkoa egiazkoa ala gezurrezkoa den, eta bai hila den ala bizia, gizakiaren, munduaren eta gizartearen harremanak eta jokabi-

deak argitzeko eta gidatzeko: hau da, giza-taldearen identitatea edo berberatasuna eta biziera gidatzeko eta oinarritzeko gauza den ala ez.

Bizia eta eraginkorra izango bada, ordea, gaurkotu beharra dago mitoak; eta hori *erlijioizunean egiten da, *erritoaren bidez; erritoaren bidez, hain zuzen, nolabait garai mitologikora aldatzen da gizakia. Mitoa gogoratu edo errepikatu ez, baina gerta-berritu egiten da erritoan. Ik. Gertaberri-tzapena.

Gaur egun mitozkoa ez dute erlijiozkoaren (benetako erlijiozkoaren) kontraktatzat hartzen. Ez dago derrigorrez mitoak eta *magia lotu beharrik ere. Esan daiteke, esan ere, erlijioak berak berreskuratu eta balio-berritu egin duela mitoak, batez ere erlijiozkoaren hizkera berezitzat hartuz. Erlijio guztien azpian dago mitoak, *misterioa adierazteko hizkera sinboliko gisa.

Baina mitoak aditu, adierazi eta kritikatu beharra dago, hizkera sinbolikoaren, irudizkoaren eta alegorizkoaren azpian, horren zentzu sakona hautemateko, eta ez ulertzeko errealtate naturalaren edo historiakoaren esplikazio fenomenologiko soiltzat. Honetantxe datza, hain zuzen ere, erlijio "primitiboaren" eta erlijio garatuaren arteko aldea: aurrenak ez dituela mitoaren hizkera plastikoa eta horrek ematen duen zuzeneko kontzeptua bera bereizten; bigarrenak, ordea, bai. Pentsaeri kritikoa, zientifikoa eta teknikoaren ekarriak badu, beraz, bere garrantzi handia edozein erlijioaren alorrean: onerako, eduki ere, bere jatortasunera eramaten bait du erlijiozkoa. Ik. Kritika (Erlijioarena).

Erlijioa hizkera mitikotik erantzteari *demitologizazioa deritza. Horrek badu arriskurik ere, mitozko jantziarekin batera erlijiozko misterioa bera ukatzekoa, alegia. Bestalde, ezagutza zientifikoa eta teknikoaren garai honetan ere, ez dirudi bidezkoa, ez eta bideragarria ere, erlijiozkoa mitozko hizkeratik erabat erantztea; ez bait dago erlijiozko misterioa adierazterik, hizkera sinboliko ez. Ik. Zientzia eta erlijioa; Sinbola.

Bilatu behar dena zera da: mitozkoa --zaharra nahiz berria-- izan dadila irrikitua edo irekia eta bizia. Kritika errazionalaren arragotik igarotako mitoak da irrikitua: hots, janzkera eta zuzeneko kontzeptua bereiziak dituen. Mitoa bizia, berriz, gaurko gizartearentzat ere eragina duena da, berorren burubidea eta jokabidea argitzeko eta zuzentzeko; gizartearen bizierari zentzia emateko gaur ere gauza dena. Edozein

sinbolo zaharkituk bezala, mito hilak bere balio guztia galdua du.

Kristau-errebeldioak, funtsezko *historikotasunaren barruan, ez du lotsarik mitoaren hizkera eurrez erabiltzeko, sarritan beste erlijio eta kulturetako mitoez baliatuz gainera. R. Bultmann, exegeta alemanak, nahiko lukeena, ordea, zera da: desmitologizazio erabatekoa, Jainkoaren errebeldioa biluzik utziz, fededunaren esperientzia hutsean. Baina orduan, mitozkoa ezezik, historiazkoa ere galdu egiten du errebeldioak, eta, azkenik, desgizatartu egiten da hori. Izan ere, gizakia historikoa eta kulturaduna da; eta Jainkoagandiko *agerkundera eta bere *fedea, kultura --eta hizkera-- historikoa jakin batean adierazi beharra dauka.

Benetako demitologizazioa hauxe besterik ez da: Errebeldioaren eta fedearen etengabeko adierazpen- edo itzulpen-prozesua garai eta gizarte --Herri-- bakoitzaren hizkuntza eta kulturara.

Ik. Erritua; Historiaren teologia; Hermeneutika; Exegesia; Erlijioaren filosofia; Teogonia; Idazteunaren adierak; Antropogonia; Kosmogonia; Hizkuntza eta erlijioa.

Paulo Agirrebaltzategi

Mitoen historikotzea

Bereziki Biblia aditzean eta adieraztean erabiltzen den esakunea, zenbait "gertakariaren" esanahia eta egiazkotasun berezia esateko; funtsean zera da, beste kultura eta erlijiotatik hartutako "gertakari" mitikoak, denboraren hasieran edo denboratik kanpo daudenak, Israelen eta mundu osoaren historia barruko *salbamen-historiako "gertakari" gisa jartzea: hala nola, *kreazioa, *paradisua, lehen gurasoen erorikoa, etab.

Ik. Historikotasuna; Mitoa; Lurreko paradisuak.

Mitogabetzea

Ik. Demitologizazioa.

Mitologia

Herri edo gizarte jakinen baten mitozko --multzoa da. Kulturako beste edozein alorrean bezala, erakuntza sistematikoa eduki ohi du, neurri batekoa behintzat.

Mitologia deritza *erlijio-zientzien eta etnologiaren adarretako bati ere: *mitoen mundua aztertzen duenari, hain zuzen ere.

Mitra

Sin.: Turra